

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Antxon Basurko Gereño

*Pasaia,
Gipuzkoa
(1947)*

Aurkibidea



Biografia



Bonantza auzoan jaioa, etxean. Ama sanjuandarra zuen eta aita ere Donibanen jaioa, baina Mutrikuko jatorriko familia batekoa. Laugarren umea izan zen Antxon , eta adin diferentzia handia zuen bere anai-arrebekin. Izan ere, gurasoak bereizita egon ziren hainbat urtean, gerraren ondorioz: ama Frantzian ibili zen errefuxiatuta, hara eta hona umeekin (ume txikiena Parisen hil zen, urtebeterekin). Aita, berriz, Galesera joan zen, bueltatzeko beldurrez (abertzalea zen eta fitxatuta zegoen). Bueltan Laboanean hasi zen lanean, saregile. Biteri eskolan eta San Pedroko Misericordia eskolan ibili zen, eta ondoren Don Boscon fundizioko modelista ikasketak egin zituen. Atletismoan ere nabarmendu zen: hainbat sari irabazi zituen. Argazkilaritza da bere zaletasunetako bat. Ubera liburutegian egindako elkarriketa.

Zintak

PAS-064

- **Proiektua:** Sanjuandarren Oroimena
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2023-11-22
- **Iraupena:** 118 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

PAS-066

- **Proiektua:** Sanjuandarren Oroimena
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2023-12-11
- **Iraupena:** 105 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Osaba Urduñako frentean erahila

- **Erref:** PAS-066/002
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:00:31. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Turkun (Finlandia) txapelketa baten zegoela, emakume bat gerturatu zitzaion eta esan zion bere osaba Luis Basurko, Durangon zuten ostatura joaten zela gerra garaian eta behin, Urduñako frentera joan zirenean ez zela bueltatu. Hori jakinda, Antxon, Aranzadirekin kontaktuan jarri zen eta informazio asko bildu zuen. Lau sanjoandar bertan hil ziren ere. Osabaren gorpua Gernikan hilobiratuta dagoela jakin zuen ere.

2. Urduñako frentean hildako lau sanjuandarrak

- **Erref:** PAS-066/003
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:07:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Gaur egun arrantzaleen kofradia dagoen lekuan, sagardotegi bat zegoen garai batean. Bere amak bertan egiten zuen lan. Urduñako frentean hildako lau gizonetik hiru agertzen diren argazki bat erakusten du Antxonek. Bere osabaren historiari buruz idatzi zuen.

3. Atletismoan nola hasi zen

- **Erref:** PAS-066/005
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:08:04. **Bukatu:** 00:09:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Atletismoaren munduan hasi zen San Joango lagun batzuekin. Oreretako taldean sartu zen eta Gipuzkoako txapelketara bidali zuten.

4. Koxtape Atletismo taldearen sorrera

- **Erref:** PAS-066/006
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:09:32. **Bukatu:** 00:12:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Koxtape Atletismo Taldea sortu zuten 1968an. Aurretik, Errotetan entrenatzen zuten, marea jeistean geratzen zen lautada batean.

5. Entrenatzeko lekuak

- **Erref:** PAS-066/007
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:12:40. **Bukatu:** 00:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

La Venta izenez ezagutzen zen almazan bat erabiltzen zuten entrenatzeko. Gerra aurretik, batzokiak antzoki bezala erabiltzen zuen. Altura handia zuenez lokalak, oso aproposa zen entrenatzeko. Banko mugikorrean entrenatzeko, garai bateko eskabetxera erabiltzen zuten. Leku ona zen, kaia alboan zegoelako.

6. 1968an Gipuzkoako txapelduna salto luzean

- **Erref:** PAS-066/008
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:16:00. **Bukatu:** 00:16:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

1968an, junior mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuen, Koxtape taldearekin. Hor erabaki zuen 100m-ko eta salto luzearen probak egitea.

7. Lagunekin gitarra eta euskara ikasten

- **Erref:** PAS-066/010
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:17:04. **Bukatu:** 00:19:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Marisa Ullak "Urrikatz" izeneko talde bat zuen beste neska batekin. Euskaraz abesten zuten baina gaztelaniaz hitz egin. Hamazazpi bat urterekin talde berdinean ateratzen hasi ziren, gitarra jotzen ikasten zuten eta bide batez euskara ikasi zuten.

8. Jesu Mari Goñirekin alfabetatzen

- **Erref:** PAS-066/011
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:19:07. **Bukatu:** 00:22:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Koxtape osatzen zutenak, Atletico San Sebastianera joan ziren entrenatzera (Donostia) eta han, euskaldunen talde bat sortu zuten. Donostiarrek oso ondo moldatzen ziren baina sanjoandarrak ez horrenbeste. Bertan hasi ziren euskaraz alfabetatzen Jesus Mari Goñirekin. Matematikak euskaraz irakasteko liburuxka bat sortu zuen Jesusek, eta Antxonek ilustrazioak egin zituen berarentzat.

9. Marrazki teknikoko irakaslea

- **Erref:** PAS-066/013
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:22:32. **Bukatu:** 00:24:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Hogei urterekin etxebizitzaren egitura metalikoak egiten hasi zen eta Usurbilgo institutik deitu zioten marrazki teknikoa irakasteko. Atletismoan jarraitzen zuen eta fama oso ona zuen ikasleen artean.

10. Entrenamenduak, lana eta lagunak

- **Erref:** PAS-066/014
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:24:05. **Bukatu:** 00:26:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Atletico San Sebastianen hasi zenean entrenatzen, beti presaka ibiltzen zen, San Pedrotik ateratzen zen azken motorra hartu behar zuelako. Lagunekin egoteko tarteak hartzen zituen, ez zuelako bere bizitza osoa entrenamendua eta lana izatea nahi.

11. OPUSak bere talderako fitxatu nahi izan zuen

- **Erref:** PAS-066/016
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:28:20. **Bukatu:** 00:32:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

1969ko maiatzaren 1ean txapelketa bat zeukan eta manifestazioa zela eta, grisez beteta zegoen guztia. Egun berezia izan zen oso marka onak egin zituelako. OPUSekoak bere taldera eraman nahi izan zuten.

12. Soldaduskan euskaldunei gorrotoa

- **Erref:** PAS-066/017
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:32:14. **Bukatu:** 00:34:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Gamarran (Gasteiz) egin zuen soldaduska eta lehenengo egunean tenienteak esan zien euskaldun guztiak putaseme batzuk zirela eta hilda egon beharko liratekeela esan zuen. Banderari zin egin behar izan zionean aitari ez zitzaion gustatu.

13. Burgosen soldaduska

- **Erref:** PAS-066/018
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:34:16. **Bukatu:** 00:35:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldaduskan zegoela, 63. artillerian izena eman zuen atletismoan entrenatu ahal izateko. Burgosen egon zen soldaduska egiten eta gaueko zaintzetan hotz asko pasatzen zutela gogoratzen du.

14. Soldaduskatik bueltatu eta herriko festak

- **Erref:** PAS-066/019
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:35:52. **Bukatu:** 00:39:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Soldaduska hilabete bat beranduago bukatu zuen, Toledora joan zelako txapelketa batera. Herrira bueltatu zenean festak ziren eta entzierroa korritu zuen.

15. Bizarra luze uzteko arrazoiak

- **Erref:** PAS-066/020
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:39:21. **Bukatu:** 00:40:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Bizarra luzatzen utzi zuen soldaduska eta gero. Orduko egoera politikoa zela

eta, poliziari identifikazio-lanak zailtzeko asmotan egin. Bizarra luze izateak karga sinboli handia zuen.

16. Gaupasa eginda atletismora

- **Erref:** PAS-066/022
- **Iraupena:** 0:04:58. **Hasi:** 00:40:46. **Bukatu:** 00:45:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Espainiako lasterketa txapelketan parte-hartzeko marka minimo batzuk eta Espainiako fitxa izatea eskatzen zen. Marka hori gau osoan festan egon ondoren lortu zuen.

17. Espainiako selekzioarekin entrenatzen

- **Erref:** PAS-066/023
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:45:44. **Bukatu:** 00:47:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Lortutako atletismoko marka onarekin, Espainiako selekzioak deitu zion eta entrenatzera joan zen beraiekin. Entrenamendua oso ezberdina zen. Aurretik, kirolarientzat errendimendu altuko zentrora joateko proposamena izan zuen baina ez zuen nahi izan.

18. Madriletik Vigora autostopean

- **Erref:** PAS-066/024
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:47:44. **Bukatu:** 00:50:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Madriletik Leonera eta handik Vigora autostopean egindako bidaia gogoratzen du.

19. Kanpoaldean entrenatzeagatik gaizki ikusiak

- **Erref:** PAS-066/026
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:50:24. **Bukatu:** 00:51:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Euskal Herrian ez, baina hemendik kanpo, kanpoaldean entrenatzen zutenean gaizki begiratzen zieten, beldurrez. Donostian, hondartzan eta inguruetan entrenatzen zuten eta inorrek ez zien ezer esaten.

20. Esklerosiaren Europako txapeldun

- **Erref:** PAS-066/029
- **Iraupena:** 0:04:16. **Hasi:** 00:54:11. **Bukatu:** 00:58:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

1972an esklerosi multiplea zuela esan zioten, eta atletismoa utzi behar zuela. Berak, ordea, bizkarrezurra sendotzeari ekin zion eta medikuak 40 urterekin gurpildun aulkian egongo zela esan bazion ere, 44 urterekin Europako txapelduna izan zen.

21. Bakarrik joanda jende asko ezagutzen da

- **Erref:** PAS-066/031
- **Iraupena:** 0:04:42. **Hasi:** 00:58:48. **Bukatu:** 01:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Euskal Herritik kanpo oporretan joaten zen bakarrik. Pertsona asko ezagutu ditu horrela.

22. Bikote amerikarra

- **Erref:** PAS-066/032
- **Iraupena:** 0:06:54. **Hasi:** 01:03:30. **Bukatu:** 01:10:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia

Laburpena:

Tren batean Donostiako lagun batekin topatu zen eta harek zuen lagun baten bitartez ezagutu zuen Dal a, bere bikote amerikarra izango zena. San Juanera eramán zuenean, aitarekin ingelesez aritu zen baina Dalak ez zion ulertzen. Antxonen aita Galesen ikasi zuen ingelesez eta Dal ak ez zion ulertzen. Hortik aurrera eskutitzak idazten hasi ziren Antxon eta bera. Dala euskaraz ikasten hasi zen.

23. Ameriketako ikurriñarekin eman zioten ongietorria

- **Erref:** PAS-066/033
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:10:24. **Bukatu:** 01:12:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Bikote amerikarra bisitatzera joan zenean, ongietorri bezala ikurriñarekin eman zioten ongietorria. Antxon beldurtu egin zen, Euskal Herrian ezin zelako ikurriña atera. Dalak, Donostiatik Ameriketara Pio Barojaren liburu bat bidali zuen baina ez zen inoiz bere helmugara iritsi.

24. Herriko bi gazte guardia zibilak tirokatuta

- **Erref:** PAS-066/035
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:12:35. **Bukatu:** 01:14:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

1975ean San Juanen egin zen manifestazio batean, guardia zibila agertu eta bi mutil tirokatu zituten: Juanma Berasategi eta Andoni Lujanbio. Tentsio handiko garaia zen.

25. Bikotea lan kontratuarekin etorri zen Euskal Herrira

- **Erref:** PAS-066/037
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:14:31. **Bukatu:** 01:16:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

1975an Dala Euskal Herrira etorri zen eta bikote bezala hasi ziren elkarrekin bizitzeko. Antxon orduan ingelesez ikasten eta euskaraz gehiago alfabetatzen hasi zen. EUTGn ingeleseko irakasle moduan kontratatatu zuten Dala.

26. Franco osteko lehenengo ezkontza zibila San Juanen

- **Erref:** PAS-066/039
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:16:24. **Bukatu:** 01:18:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Antxon eta Dala ezkontza zibil batean ezkondu ziren. Horretarako, elizan erlijio katolikoari uko egin behar izan zion. Hori eginda, udaletxera joan zen eta han ez zekiten ze prozesu jarraitu behar zen. Lehenak izan ziren gerraostean zibilez ezkontzen San Juanen.

27. Kirola egiten bizitza guztian

- **Erref:** PAS-066/040
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 01:18:08. **Bukatu:** 01:20:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola

Laburpena:

Etxebizitza erosteko zailtasunak izan zituzten et ahamar kilo galdu zituen Antxonek. Seme-alabak izan zituzten eta berriz ere kirola egiten hasi zen.

28. Detroitera bizitzera 1985ean

- **Erref:** PAS-066/042
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 01:21:13. **Bukatu:** 01:24:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

1985ean Detroitera lanera joateko aukera sortu zitzaion eta emaztearen gurasoak bertan bizi zirenez, familia guztia bertara lekualdatu zen. Seme-alabek oso azkar ikasi zuten ingelesez, baina Antxonek ez.

29. Detroiten bizimodua oso ezberdina zen

- **Erref:** PAS-066/043
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 01:24:27. **Bukatu:** 01:27:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Integrazioa » Integraziorako bideak eta arazoak
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Estatu Batuetan konturatu zen, bertan jendea beldurrez bizi zela. Berarekin batera ingelesa ikasten zuen emakume errusiarra bat zegoen eta hau, parkeetara joaten zen jendearekin hitz egitera eta hizkuntza praktikatzera. Jendea izutu egiten zen. Antxoni, kalean korrika ez egitea ere esan zioten. Urtebete igaro zuten hor eta San Juanera bueltatu ziren. Dalak ere bueltatu nahi zuen, nahiz eta hangoa izan.

30. Lasterketetan korritzen munduan zehar

- **Erref:** PAS-066/044
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:27:17. **Bukatu:** 01:29:49

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Ameriketatik bueltan, lasterketan hasi zen berriz eta beterano bezala errekorak lortu zituen. Europa eta mundu mailan korritu du Antxonek.

31. Podiumean "Egunkaria"rekin kamisetarekin

- **Erref:** PAS-066/047
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 01:33:54. **Bukatu:** 01:37:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

2003an, lehenengo aldiz ospatu zen lasterketa txapelketa bat Donostian. Urte hortan Egunkaria itxi zuten eta Antxonek hori aldarrikatu nahi izan zuen. Bigarren gelditu zenez, podiumean zegoela Egunkariako kamiseta jantzi zuen. San Juanen ongietorria egin zioten Antxoni eta berarekin zihoan korrikalari eslobakiarrek dantza egin zion

32. Euskadi elastikoarekin korritzeagatik deskalifikatua

- **Erref:** PAS-066/048
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 01:37:32. **Bukatu:** 01:41:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Antxonek beti parte hartu du txapelketetan Euskadiko elastikoarekin. Baina Espainiako txapelketa batean, korritzen utzi zioten baina gero deskalifikatu egin zuten. Ordutik ez du txapelketetan parte hartu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-09-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com